



**AUTONOMIA-ERKIDEGO HONETAN ESKAINTZEN DIREN  
UNIBERTSITATE-MAILAKO IKASKETAK, BESTE HERRIALDE  
BATZUETAN INDARREAN DAUDEN HEZKUNTZA-SISTEMEN  
ARABERA.**

Atzerriko unibertsitateetan egiten diren tituluak ez homologatu izanagatik sor daitezkeen nahasketak ekidite aldera, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Zuzendaritzak honakoa adierazi du:

1. **330/1999 Dekretuak, irailaren 21ekoak**, beste herrialde batzuetan indarrean dauden hezkuntza-sistemak oinarritzat hartuta, Espainiako estatuko tituluekin homologatu ezineko unibertsitate-mailako ikasketak ematen dituzten ikastegien eraketa eta jarduna baimentzeko prozedurak eta baldintzak arautzen ditu.
2. Atzerriko unibertsitateetan egindako tituluak lortzera bideratzen diren ikasketek herrialde horretako legediak aitortzen dien baliozkotasuna izango dute.
3. Titulu horiek ez daude homologatuta Espainiako estatuko Unibertsitate-mailako Tituluen Katalogo Ofizialean datozenekin, Unibertsitate Kontseiluak ez baititu ikasketa horiei dagozkien ikasketa-planak onetsi.
4. Behin titulua lortu ondoren, hau homologatu nahi dutenek halaxe adierazi beharko dute Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Titulu, Konbalidazio eta Homologazioen Zuzendariordetza Nagusian. Horretarako, nahitaezkoa da ikastegien eraketa eta jarduna baimenduta egotea. Ondorioz, ikasketa horiek ezingo dira homologatu, ikastegiak baimena beranduago lortu arren, baimen honek ez baitu atzeraeraginezko izaerarik.
5. Baimena lortzeak ez du esan nahi etorkizunean homologazioa gertatuko denik. Homologazio-prozedura banakakoa da; tituluaren baliozkotasuna aztertzeaz gain, egindako ikasketen edukiak ere kontuan hartzen dira. Prozedura hau eskatutako homologazioa ematean edo ukatzean amaitzen da.
6. Ikastegi bakoitzak unibertsitate jakin bateko ikasketa jakin batzuk ikasturte zehatz batetik aurrera eskaintzeko baimena du.
7. Bestalde, gogorarazi beharra dugu **182/1997 Dekretuak, uztailaren 22koak**, balio akademikoko tituluren bat lortzera bideratzen ez diren unibertsitateaz kanpoko ikasketak eskaintzen dituzten ikastegi pribatuetako ikasleei dagokien informazio-eskubidea arautzen duela.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko azaroaren 7an.



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN EGOITZA IZANIK, JARRAIAN  
AIPATZEN DIREN TITULUAK EMATEKO BAIMENA DUTEN  
IKASTETXEEN ZERRENDA:**

IKASTEGIA	BAIMENDUTAKO TITULUA	ATZERRIKO UNIBERTSITATEA	BAIMENA
Know How Business College (Vitoria-Gasteiz)	Bachelor of Arts in Business Administration.	Prifysgol Cymru University of Wales (Erresuma Batua).	1999-2000
Melchor de Jovellanos unibertsitate-ikastegia (Bilbo)	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bachelor of Arts/Bachelor of Science Honours</li> <li>• Bachelor in Business Administration.</li> <li>• Bachelor in Business Administration (Marketing).</li> <li>• Bachelor in Business Administration (Information Systems).</li> <li>• Bachelor of Arts in International Business Administration.</li> <li>•</li> </ul>	University of Lincolnshire and Humberside (Erresuma Batua).	1999-2000
Negozioren Goi Eskola – ESNE (Derio, Bizkaia).	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bachelor of Arts &amp; BA (Honours) in Business Administration.</li> <li>• Bachelor of Arts &amp; BA (Honours) in Business Tourism.</li> <li>• Bachelor of Arts &amp; BA (Honours) Tourism.</li> <li>• Bachelor of Arts &amp; BA (Honours) Marketing.</li> <li>• Bachelor of Science &amp; BSc (Honours) Environmental Science.</li> <li>• Bachelor of Science &amp; BSc (Honours) Environmental Management.</li> <li>• Bachelor of Science &amp; BSc (Honours) Environmental Technology</li> </ul>	University of Wolverhampton (Erresuma Batua).	1999-2000
Eskualdeko Lanbide Eskola (Lea-Artibai)	Bachelor of Science in Polymer Engineering	University of North London (Ingalaterra).	1999-2000
Euskal Herriko Marketing Institutua, S.A. (Derio, Bizkaia).	Bachelor of Arts & BA (Honours) in Business and Marketing.	University of Hertfordshire (Erresuma Batua).	1999-2000
Makina-erremintako Prestakuntza Teknikorako Fundazioa (Elgoibar, Gipuzkoa).	Ikas-ekinezko enpresako ingeniaria (CESI).	L'Ecole D'Ingenieurs du CESI, egoitza Parisen duena.	2002-2003